Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Angel Nabea Arriola

Gernika-Lumo, Bizkaia
(1930-2019)



Aurkibidea

Biografia



Arratzuko Loiola auzoko Iberran jaio eta laster etorri ziren Gernikara, Juan Kaltzada kalera, Saraspera. Aita arratzuarra zuen eta ama Ondarroakoa. Bere aita errepublika garaian Arratzuko alkatea izan zen. Bonbardaketaren bezperan Arratzura joan ziren etxekoak eta onik irten ziren denak. Karmeldarren ikastetxean eta Arratzuko eskolan ibili ostean, 1939. urtean, Bilboko Santiago Apostol ikastetxera joan zen 13 urtera arte. Segituan hasi zen Bilboko moilan aitaren zerrategirako lanean. 1946. urtean, zerrategiko kamio-gidari lanetan hasi zen eta estraperlo garaia ezagutu eta bizi izan zuen. Azken urteetan bere emaztearen familiako Lizeo tabernan aritu zen. Gernika-Lumon oso ezaguna da Angel, 40. hamarkadatik herriko hainbat ekitaldi, jai zein ospakizun iruditan baititu eta ohikoa da non-nahi bideo-kamera aldean duela aurkitzea.

Zintak

GER-059

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-01-21
- **Iraupena**: 83 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Gisasola, Karmen

GER-060

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-01-21
- **Iraupena**: 72 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

GER-061

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-02-11
- **Iraupena**: 67 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

GER-062

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-02-11
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

GER-063

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-02-11
- **Iraupena**: 54 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

GER-064

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-02-16
- **Iraupena**: 66 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

GER-065

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-02-16
- **Iraupena**: 58 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

GER-066

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-02-16
- **Iraupena**: 30 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Baserritarrak pertsona argiak dira

- **Erref**: GER-059/002
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:03:16. **Bukatu**: 00:06:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Baserritarrak pertsona argiak, zuhurrak, zirela dio, nahiz eta baserritik ez irten. Behin ekologista batzuekin izan zuen elkarrizketa dakar gogora. Gaur egun, ostera, ez dago osotasunean horretara dedikatzen denik. Lehen ez zegoen ezta negutegirik ezta urik ere.

Transkripzioa
-Oin berai esaten netsen, orduen sasoien: “koño, ba frailiek”. Ze baserrittarra intelijentie da gero, eh! Esaten ebien, baserrixe ez dakit zerta. Baserrittarra ez da tontue, ez deko hauxen be gero! Bakizu ze paseten dan? Ordun sasoien baserrittarra, egoten zan asko baserrixen geldi. Jaixetan iñora be ez zan joaten; ez domekarik ez ezer. Jarritten zan etarte baten ta etarte baten ba, esaten eban zelako denporie dauen, zer eingo daben, zer ez daben eingo, zer bertan. Nik baten diskuziñoa, honekin ekolojistekin euki naben. Esan esten /esasten/ ba, berbetan hamen, hor Errixo kalien, ta: “pues nosotros, sabemos que, porque hemos estudiao por eso y tal y cual”. Nik esan notsen, ba bateri: “no tenéis ni idea vosotros”. “¿Cómo que no?” “¿Vosotros la tierra conocéis? Vosotros no conocéis la tierra. Conocen la tierra, esos que están trabajando ahí. Vosotros no”. Y ¿por qué y tal? le dije”. Esan netsen: zuk ekarri eizu baserritar bat Arteagakue edo Kortezubikoa, errekin hemengo alderdire, ta forutar bat eroaizu hara, ta bixek dabiz galdute. Ta beittu zelako distantzixen, ezebez. Lurre ez dabe ezetzen, ez dabe mame ha behie. Ha behien mame ezien ba alperrik de. Eta zuek zelan jakingo dozue /jakingozue/ lurren barrixe, etxien tarro bat lur ez dekozue-ta? Ta joño, “pues tienes razón también pero tal” ta hasi jaten eta bueno. “Tendré o no tendré razón” baiña egixe, holantxik de. Baserrittarra zuhurre da. Baserrittarrak sufridu eitten deu asko. Eta oin horrenbeste ez, baiña lehen akordeten naz ni gaztie nitzenien, iguel domeka baten baserrittarra jesartzen zan etartien ta egoten zan hantxe zigarroa erre ta hantxe begire ta siestie ein ta gero, hona ta hara, zelako denporie eingo daben-ta. Horrek kalkuloak eitten, beti eon da baserrittarra. Mariñerue be itsosoan beti egon da arraiñe nun egongo dan uren koloriegaittik edo hau edo bestie. Bardin-bardin. Alperrik da, haren kontra zelan joango zara, ba? […] nik ama, Ondarrukoa eukitte ba ha asko ezetzen naben, ezta? Zelan joango zara harek gizonak, analfabetoak, barkoz-eta nora joaten zien? Ta gero hona etorri. Ez eben biher, ez makiñarik ez aparatorik ez kristorik. Ezebez! Ta haren kontra zelan joango zara, ba? “Es en balde”, alperrik de! Ta honekin baserrittarrokin “pasa igual”. Gaur egunien ez, ze geur egunien ez dau baserrittarrik; ze, geur baserrittarra, dediketen dana osoa, ez dau garaurik be. Garaurik be, ez. Iñun be ez. Zahar-zaharren batzuk edo edadeko andrak edo gizonen batzuk, baiña gitxi. Gitxi, gaur ez dau ze danak alde eitten dabe-eta. Ta orduko denporako geuzie, dana zan Gernikara etortie baserrittarra astelehenetan. Gehixau?
-Solotik bizi dana ez badan dekozela asko, inbernaderoak-eta saltzeko-eta, ez.
-Keba! Ta gaur inbernaderoak; ordun, ezebez ez zan egon. […] inbernaderoan-ta, hartzen da; orduen dana hartu biher izeten zan. Zelan esango deutsut ba? “A puro huevo” ze, ez zan egon ezebez: ez, urik baserrixetan, ez ezebez ez zan egoten. Errekatik, galderiaz ataten, ure. Ta, harek, ze esango dotsut, ba? Ipintten ebezan porruek ta geuzek, bakotzak erun apurtxo bat katilluaz, botaten “tza-tza-tza”, erregeu daittezan.

2. Baserritar asko Gernikara lanera

- **Erref**: GER-059/004
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:07:17. **Bukatu**: 00:08:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ekonomia eta industria » Boom industriala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Baserritar asko etortzen ziren Gernikako lantegietara lanera. Basoetan ere lan asko zegoen. Gaur egun baserri asko daude hutsik.

Transkripzioa
- Bakizu zenbat jentek eitten eban biher Gerniken baserrikoak? Lehen etorten zien baserrixetatik bizikletatan igual kuadrillek hamar-hamabost-hogei lagunekoak. Beste alderdittik beste batzuk eta Gerniken juntetan zanien, orduen jente asko egon zan. Ta, gero beste bat egon zana da biher asko, hemen mendixen, basoan. Orduen biher asko egoten zan mendixen, baia asko. Bakizu zenbat serra, zenbat geuze eon zan orduen, hemen? Basoak eta danak. Geur ezebez! Geur egurrek ez deu balixo ta nok? Ha jornala ez da altxetan lehengo biherregaz. Ezin ta baserriko biherregaz be, ez. Baserriko biherra daukonak, ba… Haxe euko deu, ze esango dotsut ba? Afiziñotxue ta penie ixtie ta horrexek geuzek. Haren hurrungo jeneraziñoak, itxi deu. Hara ez doa iñor. Beittu zemat baserri itzelak dauzen, kanpoak abandoneute! Geur egunien, dana dau holantxik. Dana dau, galdute konpletamente, konpletamente.

3. Bonbardaketa bezperan Arratzura egin zuten alde

- **Erref**: GER-059/005
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:08:19. **Bukatu**: 00:10:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Berak 3 bat urte zituela, Gernikara etorri ziren bizitzera, Zigerta dantzalekuaren gainera. Hiru familia bizi ziren etxe hartan. Gernikan Gipuzkoa aldetik alde egindako asko zeuden eta beraien etxean ere egon ziren. Gernika bonbardatu behar zutenaren zurrumurrua egon zen, eta bezperan, domekan, aitak Arratzura eraman zuen familia guztia. Angelek bizikleta baino ez zuen lortu ateratzea.

Transkripzioa
- Gero hamen, ni gero ni Arratzun […], etorri giñen horra, Gernikara bizitten. Hara, Sala Fiestasen ganera.
- Noz etorri ziñien?
- Pues ze esango dotsut? “Pues, ahí sobre el año”, nire aitte hemen pixuen eon zan. Euki ban “en el año veinti ocho o así”, eukan pixue. Ta, gero ban

ni treintan jaixoa naz ta ya treintan Gerniken bizitten. Egon giñen hor, Sala de Fiestas baten ganien. Hori etxie, zerana zan, “este Jesús” Txingau, Txingau, ezetu zendun? Zuk, ez zendun ezetuko. Haren, etxie, haretxena zan ta etxe guztixen, hiru familie baiño ez zien bizi. Ta behien dendie euki eban eurek, etxe-uzabak. Ta bakizu hantxe nik akordue umetan: etxie zarratzen zan ta beste etxe guztixek danak eoten zien ereitte danentzat. Gero, etor zan gerra denporan, hamendik jente asko etorri zan Gernikera, hortik Gipuzku aldetik eskapeute; eibartarrak-eta asko. Honek kiputxek, eibartarrak, Elgoibarkuek eta horko jentiek, Gernikara jo eban asko.
- Armerire be, asko?
- Ez, baiña eskapetan gerratik. Ta horrek hona etorri zienien, geure etxien be, sartu zien. […] lo eitteko-ta, hau ta bestie. Ta Gernike bonbardieu biher dabiela-ta, ez dakit zer-eta, nire aittek hori astelehenien ein zan bonbardieu. Ta domekan atara ta Arratzure eroan gaittun. Osea bizperan zurrumurrue, bonbardeuena ta hartu, ta Arratzun amaittu fameli guztixe. Ta horregaittik atera eban amak etxetik neure bizikletie. Umien terkedadie orduen, horrexek geuzek.

4. Umetan karmeldarren ikastetxean

- **Erref**: GER-059/006
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:10:34. **Bukatu**: 00:11:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Bonbardaketa bezperan Arratzura joan arte karmeldarren ikastetxean egon zen 1934. urtetik. Karmeldarren ikastetxean alde zaharra baino ez zegoen eta atzealdean jolasteko leku handiak zituen. Garaioaren alabarekin joaten zen eskolara.

Transkripzioa
- Jesus, bakizu zemat urte dan? Gero eskolara zerera eroan ostien / eroastien/, hona Karmelittetara, “en el año cuarenta y cuatro” edo holan. Gero, haraxe Arratzun jun arte, hantxe eskolan euki osten /eukisten/. Ta ze esango dotsut? Hortik, gehixau…
- Karmelitxetan, mutillek be, egon ziñien?
- Bai. Orduen, ez zan egon parte zaharra baiño eindde. Beste guztixe, ein barik egon zan. Ta, han atzien ipelako bedartzak-ta, egon zien; umiek-eta olgetako leku espeziala, ordun sasoien. Ta ni joaten nitten, bi joaten giñen, neska bat eta neu eskolara alkarregaz; neskie zan, Garaioan alabie, zuk ez zendun ezetuko. Caja Ahorros-en eon zan, ha, diretore. Garaioa, bueno urtiek die asko, harexen alabiaz joan nitzen. Oin, Donostin-eta hortik bizi da, alargundu zen bera. Ta haregaz baiña bakizu zemat urte? Zemat… Jesus!

5. Burgotik Gernika errearen ikusmira

- **Erref**: GER-059/007
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:11:35. **Bukatu**: 00:12:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gernika erre eta biharamunean, Burgo mendira igo ziren. Handik ikusten zutena azaltzen du.

Transkripzioa
- Gero, gu Arratzun joan, hor dometan, Gernike erre ta bixamonien, martitzenien horra Burgora igoten gendun. Ordun, umiek gu; zazpi urteko umiek ba. Pasetan da, nire kuadrillako umiek gehixenak hil die. Nik be larogei urte dekotaz eta harek be batzuk zaharrauek, beste batzuk gaztiauek ba. Ya ez gara geratzen kontizu bi edo hiru baiño. Ta horra Burgora igon gendun. Ta ikusten zan Gernike ba, laiñoa lez; dana ketan. Ta lantzien behin etorten zan haizie, mobiduten zan ta brasa agertzen zan danien. Ostabe ba, haizieaz ba erdi laiñotute lez geratzen zan keiegaz. Ta ostabe ba, dana illunduten zan. Baiña ostabe haixe [barra bat] etorri ta “ra” brasa, handik Burgo ganetik ikusten zan. Gu umiek orduen, ba atara kontuek zenbat urte. Baia Jesus!

6. Gerrako materialarekin jolasten

- **Erref**: GER-059/008
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:12:29. **Bukatu**: 00:15:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Umeak zirela, Arratzun preso hartu zuten mutiko bat fusilatu egin zuten, eta bertan lurperatu zuten. Ugerkara eramaten zituzten hildakoak eskailera batean. Gerrako materiala soldaduek bota egiten zuten askotan eta umeek horiek jaso eta jolasteko erabiltzen zituzten. Hori dela-eta, badaude oraindik gerra sasoian zauritutakoak. Bonba asko erakargarriak ei ziren, koloretakoak. Mutilak aritzen ziren horretan.

Transkripzioa

- Gero orduen sasoien, han Arratzun gu umiek giñela, soldaduek ez dakit preso atrapau eben baten bat, gorri aldekoa esaten eben dala, ta “esto”, horregaittik esango dotsut ze, haren… Ze esango dotsut zegaittik. Gorri aldekoa dala eta ez dabela gure konpeseu ta afusillau ein eben han. Ta Telletxe, zuek esaten dozuen Telletxeeurrekoa, kamiñoa dau erdixen, ta kamiñotik, han beheko zulora, han karkabien, han errekatxue dau. Hantxe erreka kantoien hil eben, soloan. Hantxe enterre eben /enterreben/. Ganera, ez gaittuen, gu umiek bakizu, enterau giñela, ez dakit zer ta badakit zer. Umiek edonora joan giñen eta bota ein gaittuen soldaduek. Horrek ya hamengoak ziren: ejerzittue bertokoak. Bota gaittuen: “fuera de aquí”. Eta gero hamen Burgorako bidien lantzien-behin ikusten zan bat hilde. Akorduen dekot, bakizu nun bajatzen ebezan, Ugerka ganera

eroateko kamioien-ta? Eskillaran: eskillaratxue hartun ta hantxen ganien ipiñi-ta. Horrek ikusitte dekoguz, zelan bajatu ebezan orduen. Ta zelan, ze esango dotsut? Eitten ebena da materixela gerrakoa bota soldaduek; honek balak-eta bonbak-eta honek geuzek. Guk Sabinori esaten gontsen. Sabino Gandarias, hemen Marzananien eitten eban biher, armerue zan ha, gure jefie armeruena. Ze eitten geuntsen bonbak-eta batu. Atara kontuek, umiek-eta bonbak batzen. Ta balak-eta honek kartutxera osoak, botata. Ta karkaban sartun, bota […] igual horrek danak, bota ganetik lastoak eta harek emoten otson sue, danari. Ta klaro tiroa-ta, “bueno aquí hubo de todo”. Horregaittik egon zan gure sasoien mutil asko hankak, hanka barik eta bueno, hanka barik edo txarto dauzela. Hamen Gerniken, bat dau, ezetzen dozu, mekauen! Errenterixeko goikoa, zelan deko harek izena? Jabier? Jabier Manzisidor, hantxe Arratzuko kamiñoa, zerien ganien bizi da hori, telebisiñoa Gernikekoa ganien? Hantxe bizi de Manzisidor. Hori be, gerratikoa da aberizeute, ta horri, gero be, operazio hainbet ein biher jakozan hankie ez ebateko, gaztie dala. Ba horrek be eukiko dittuz oin, “tendrá pues setenta y cuatro-cinco años”. Hamen horrek geuzek, gerrie amaittute gero be, asko agertzen zien, leku askotan. Umiek olgeu bonbakin-ta atara kontue, zelan zien. Nik atrapeu naben nik umetan etxera bonbak eroanda euki nabezen eta nire moduen bestiek be bai. Ze, zien batzuk, koloriñetakoak eta polittek. Harek die geuzek-eta! Eta “fijate, para un disparate de pares y dios mío, pero”. Jakin be ez-ta. Billurrik be ez-ta. Zer dan ta zer ez dan be, ez.
-Olgetan, ganera?
-Olgetan, harekin. Harrike, botaten-ta.
-Seguru, mutillek bakarrik ibiltxen ziñiela, horretan?
-Eske orduen, mutillek neskekin ez zien ibiltten e! Beti ibiltzen zan gaur baiño apartiau. Ez da geurko moduen. Geurko moduko nahastie, ez zan egon. Lantzien behin neskak edadekoak-eta eurekin berba, egon ta hau ta bestie. Baiña gero, olgetako-ta hortik joateko-ta, ze esango dotsut, ba? Txori-habixetan joateko, beti mutillek; sekule be ez neskarik. Osea, geure artien konpondu.
-Baiña, diñot, seguru neskak ez ziela ibiltzen balakaz-eta olgetan?
-Ez, ez. Horrekin gauzekin, ez. Neskak, ez baiña mutillek ba...

7. Maisu finkorik gabe edo maisu barik

- **Erref**: GER-059/009
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:15:57. **Bukatu**: 00:17:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Umetan tiragomarekin eta habailarekin ibiltzen ziren mutikoak. Lehengo maisuak zorrotzak izaten ziren eta eskolara mihimenak eraman behar izaten zituzten maisuek horiekin jotzeko. Maisuak behin eta berriro aldatzen zituzten; maistrak, ostera, ez. Sasoi batean, ez zuten izan maisurik eta Toribio tabernariak zabaltzen zien eskolako atea. Angel gero ikastetxean sartu zuten zer edo zer ikas zezan.

Transkripzioa
- Orduen guk bakizu zer eukitten gendun umetan? Zure aittek be, zure aittittek be Florenziok be jakingo deu. Eukitten gendun tiragomie ta abille. Abille, bakizu zer dan, ezta? Bueno, guk harexek bixek geunkezan umetan. Tiragomie ta abille, beti boltsilloan. Ta gero, orduen maixuek egon zien gogorrak. Etorten zan, Arratzure etorten zan maixue, esate baterako ta gero kintalak-ta altxaten eben ta maixu barik, hainbeste denpora egoten giñen han. Ta harek ordun sasoien, eroan ein biher genduzen mimenak, eurekin emoteko geuri. Etzuten gaittuen han, mahaixen gaiñin eperdiz gora, ta mimenagaz “leña”! Ta geldi egon erain danori. Orduen, ta zer “vamos a ver”. Karo harek be faltau eitten zien asko. Neskana en kanbio, maistrie, kontinuo eon zan han, donostiar bat. Gerrie baiño ariñao, gerrie akabau te gero be, hantxe eon zan. Bai. Ya apellidue ez dait. Paulita euki eban izena. Horren izena akorduen dekot, baia mutillek, ez. Mutillek honek maixuek joan-etorri, “quintadas esto, aquello lo otro”, orduen sasoien geuzie Arratzun. Atara kontuk, epoka baten eskolie edeitzen oskuen, ordun ikesi genduzen eitten abioiek, pajarittek, honek geuze guztixek. Ez gendun euki maixurik eta horrek, tabernie, “esto” eskolie edeitten oskun taberneruek. Toribiok. Etorten zan giltzeaz ta: “ia mutillek, barrure!”. Berak be seme bi, e! “Barrure!”. Ta ze eingo gendun be? Hantxe, aintziñeko harek, dizionarixoak... Bakizu ha pale fiñe euki ebenak fin-fiñe, abioiek-eta eitteko, [...] ta guk harek danak. “Jode, fuego a la barraca”.
-Ta denpora asko maixu barik?
-Bai, igual hille bitten ta hiruen iñor bez. Ta iguel, lauen be ez.

8. Santiago Apostol ikastetxean ezin euskaraz egin

- **Erref**: GER-059/010
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:17:59. **Bukatu**: 00:21:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Arratzuko eskolatik Bilboko Santiago Apostol ikastetxera joan zen, 9 urte zituela. Ez zieten uzten euskaraz egiten, baina gura barik irteten zitzaien, noizean behin kokoteko bat hartu eta kito. Luis Haya fraidea aipatzen du. Fraideen zigorrak gehienetan, "no hablaras en vasco y hablaras el idioma español" idaztea zen.

Transkripzioa
- Ta ni horregaittik handik gero, kolegijora sartu ostien. Apur bet zeozer ikesteko be; ze ostantzien ez zan egon moduik ezer ikesteko.
- Nora?
- Bilbora, “a Santiago Apóstol en el año treinta y nueve”. Bederatzi urteaz, “interno”.
- Ba, han sasoien, edonor ez zan joango Bilboraiño ikesten?
- Bai. Gu ordun egon giñen, ni baiño bat, egon zan gaztiaue zerien, Vicente Barbés. Sekulo ez jate ahaztuko. Hor Calahorrakoa “Conservas Barbés”, haren aitte ta ama azidente baten hil zien. Aittitteaz geratu zan, aittittek sartu eban interno. Zan, gu baiño, ni baiño urtebete-edo gaztiao zan han,

Santiago Apostolen. Bueno, Santiago Apostolen “abria igual mil cuatrocientos o”. Interno egongo zien ehun ta, ze esango dotsut ba? Berrogei-edo; ehun ta berrogeta hamar ehun ta berrogei. Ta gero “medio-pensionistas”-ta. Egoten zana zan orduen, fraille artien ribalidadie itzela; ze, fraille batzuk zien hamengoak, eta beste batzuk zien kanpokoak. Ta “por política”, gerrie amaittu barri, ba atara kontuek zelako lioak egoten zien. Frailliek eurek be, alkar ez zien konpontzen beti. Ta gero ez doskuen ixten euskeraz eitten. Ze guk hamen ba, hamengo bueltakoak euskeraz eitten gendun. Fraillie etorten zan ta: “esto, tenéis que hablar en esto, en cristiano”, esaten oskun. Bueno hasten zien, gu bestela ba “ra” hasten ziñen ostabe euskeraz, kokoteko bat-eta bakizu “cosas de la época”. Bai, hombre! Gero han eon zan sudiretore fraille bat, gogorra zana. Zan Francon aldetik eon zan zer bat, militar abiadore bat, militarra, “un tal Carlos Aia”. Iñoiz periodikuek be, ekarri dau haren zera. Ta haren aneixe bat eon zan, han, fraille: Luis Aia. Harek Luis Aiak-eta emoten otsien euskerieri. Victor Galdiz bakizu nor dan? Analisixek zelan eitten ebazen hor zerien? Barberixe bat eon zan, ba, “Ubarrena”? Camberren hantxe eon zan. Horrek analisixek eitten eban. Egon zien Victor Gandiz ta lobie, Juan Ignacio Onaindia. Ez dakit horren akordurik ez dozu eukiko. Horrexei, Victor Gandizi–ta harek emoten otsien eskolie. Gogorra zan, e! Baiña eitten zendun euskeraz ta “un capón, seguido, taca. Sí, joder. Sin querer”. Ze eingo dotsezu ba? Danak harek be pasa zien-ta.
- Kapoie, euskeraz eittiarren edo beste gauza...?
- Euskeraz eittiarren.
- Aparte be eingo otsuezan kastiguek eta...?
- Ordun, frailliek eitten ebezan kastiguek, gehixenak zerak: “no hablarás en vasco”, hainbeste bider. Ta “no hablarás en vasco, habla el idioma español y, hablas el idioma español”. Igual ba hori berrogei bider edo bostehun. Nik ez dait, memorixen ez dekot, ezta? baiña horrek? Buf! gu danori.

9. Argentinako Huracán-en gernikar bat

- **Erref**: GER-059/011
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:21:19. **Bukatu**: 00:23:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Aisialdia diasporan
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Bilboko Santiago Apostol ikastetxean Gernikaldeko ikasle asko egon ziren. Fermin Uriona gernikarra handik Argentinara joan zen osabengana, eta bertako Huracán taldean jokatu zuen. Nahiz eta kirolari ona izan, lar parrandazalea omen zen, bestela laster lortu zuen ospea. Gernikan inoiz egon den kirolari onena zela dio.

Transkripzioa
- Hamen, ordun sasoien egon giñen... Hamengo bat, Fermin Uriona... Uriona, zuk ez zendun ezetuko. Han, Katan anaixek, Uriona. “Son familias que han desaparecido ya. Eso. Este Fermin”, fenomenoa zan. Hori bizi zen frontoi zaharrien aurrien. Hori, horrek euki ebazen aman, ama Aulestikoa zan, aitte hamengoa, tratantie. Ta euki ebazen tio batzuk, amanak Ameriketan, Argentinan. Ta harek solteruek. Ta harek tiuek esan otsien ba,

botetako hemendik mutil bet, euren kargu te geuze guztixek, geuze guztixen kargu eitteko. Ya berantzat izengo izengo dala-ta hau te bestie. Ta hau Fermin deportistie zan itzela, pelotaka, fubolien, danien. Atara kontue, hau da ya, zenbat urte joango zan hori ba? Hamazortzi-hogei urteaz-edo, ya joan zen hara Argentinera ta esan otsien /esantsien/ osabari: “¿todo esto para mí, por estar aquí? Pa vosotros. Yo no quiero estar aquí”. Fíjate si era deportista”, ordun Argentinen ekipue Huracán zan Argentineko ekipo bat, ointxe izeten lez “como un Real Madrid, no sé yo eso. Y, le quitó el pulso al interior izquierda Fermin. Fíjate si era deportista para quitar el pulso a aquel”. Baia golfantie. Hartu eban dirue eta “nos hizo así a los argentinos ¿Entiendes”. Ba, ointxe hil de, ointxe dala urtebete edo bi hil de Argentinen. Bai, hantxe bizi izen da, han euki deu restaurante bat, hango neskato bataz ezkondu zen ta egon zien ointxe dala urte bi andra-gizonak eon zien hamen. Lumon jan gendun ganera bezkarixe ta ba, zelan dauen-ta ez dabillela ondo. Ta efetibamente. Handik eta urtebetera edo arintxuau, hor joan zan Fermin. “Ahora, yo el mejor deportista que he visto en Gernika”. Puf! askogaittik.
- Egon die ba, gero be Rafa Iriondo ta holakoak?
- Bueno, Rafa Iriondo-ta baiño hori, zaharraua zan. “Rafa Iriondo tendrá” larogeta hamahiru urte eukiko dittuz. “¿Entiendes?” Baiña ez, ha “era un tío de, de…” Naturelizie ekarri eban. Pelotarixe be, ona. Bueno, juergistie be, ona. Dana ona.

10. Gernikan futbol-jokalari asko

- **Erref**: GER-059/012
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:23:42. **Bukatu**: 00:25:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Alaves eta Espanyol futbol-taldeetan hainbat gernikar aritu izan dira: Kortabitarte anaiak, Ibarra, Ormaetxe, Makala Zabarte... Mauri Athleticen zebilela, entrenatzailea jaietan etxera joaten zitzaion lo zegoela ziurtatzeko

Transkripzioa
-Ta konstantie ez zan. Hortxe galdu zen, ha. Ha, izen bazen konstantie? Bueno, izengo zan fenomeno bat. Hamen, holako zerak, hainbeste egon die banaka-banaka. Bueno, ni gaztie-edo izen nintzenien, Gerniken hainbeste fuboliste eon zien Alavesen jokatzen-ta. Hiru-lau te, “en primera división estaban juntos”. Hamen, horrek, bat zan, Korta bat. notarixen egon zana Korta? Harek, aneixe bi eon zien Korta. Hil zana? Haixe, bat. Juanito.
-Bestie, Jesus?
-Bestie, Jesus da. Ta bestie Javier; gaztiena karroan dabillena. Harek eitten eban Alavesen jokatu. Gero eitten eban Ibarrak; Pipasenekoak, Errenterixekoak. Harekin jokatzen eban. Gero atzera, Ormaetxek be, jokatu eban. “Pero esos otros…” Lehenengo egon zien, primeran jokatzen eon zien, horrek. Ta “aquí hubo muchos”. Gero, Espaynolen eon zan jokatzen Makala. Zabarte, zuk hori, horrek, alabie hemen bizi de. Ta don Luis izen zan horrexen denboran kapittana. Ta harexen aneixa bat, bueno aneixe-ordie euken, “aquel también estaba jugando en el Espaynol. Luego, Iriondo

aquí en Bilbao, Mauri más tarde". Bai, geroau. Mauri be, atara kontue: Mauriri entrenadorie etorten jakon etxera, ikusteko lo badeu jaixetan-ta. "Sí".
-Juergistie zan ala?
-Jo, bakizu jaixetan danak. Bai. Ez dau ha, ta bestie. "Entonces aquel le sacó" Daucik entrenadorie Daucik eon zan ordun Bilbon. Hareixek ata eban, honexek fakultadiek itzelak, honek Marurik be.

11. Euskara galarazita

- **Erref**: GER-059/014
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:26:21. **Bukatu**: 00:27:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Polizia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Gernikan euskaraz egitea galarazita zegoen. Guardia Zibilak aritzen ziren isiltzeko esaten; hori dela-eta, askok gaztelaniarako joera hartu zuten. Arratzun berdin-berdin egiten zuten euskaraz. Guardia zibil batek arratzuar bati jo zionekoa kontatzen du.

Transkripzioa
- Ya bakizu? Zuk geuze bat ez badarabizu aldien, galdu dozu. Ta harek be, haixe.
- Gerniken asko galdu zan euskerie?
- Bai. Ordun galazo eitten eben, jode! "Entonces te venía la Guardia Civil y te tenías que callar". Gu akordetan naz ni, Arratzun eskolan-ta ordun guardia zibillek etorten zien kamiñotik; bata alderdi batetik eta bestie, bestetik. Oingo moduen ez zen. Bat, alderdi bakotxetik. "Chavales, ¿no sabéis hablar en español, en cristiano?, esaten oskun. Ba bai, jakitten genduen eta ein eitten gendun, baiña harek aldeten ebaneko, ya ostabe ba zure erara edo eitten zien. Hari kokoteko bat zerak zerari emon otson, Juaneri. Juan hil zen, ha be egon zan Brasillen edo hortik hil zen. Hori zen koiñetue, honek Irazabal ferreterixe? Horrexen koiñetue zan. Ta hari emon otsien /emontsien/ kokoteko bat Arratzun; akorduen dekot Juaneri. Ez daitz er zan eta euskeraz konteste otson, ta plas! Bueno, ez esateko [...] Kokoteko bat. Bakizu nori emon otsien, Doroteori, bakizu Telletxekoa Doroteo? Harexei emon eutson guardiazibil batek, itzela. Ni ordun bizi naitten Arratzun. Ni bakarrik urte askotan bizi izen nitten.

12. "De Madrid ha venido mierda en bote para untar a los Guardia civiles en el bigote"

- **Erref**: GER-059/016
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:31:43. **Bukatu**: 00:32:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Umetan "De Madrid ha venido mierda en bote para untar a los Guardia civiles en el bigote" abestia abesten zuten, baina guardia zibilak agertzerakoan arin isiltzen ziren.

Transkripzioa
- Orduen, honek Pako Buruk-eta telebisiñoen atatan dabezan honek […] kanziñoak. “Jugábamos a esto”, ez dakit zer. Ordun kanziño bat, egon zan esaten ebana: “Si supieran los…¡No!”
“De Madrid ha venido mierda en pote,
para untar a los guardia civiles el bigote”.
Ze, ordun guardia zibilek asko, holako bigotiaz ibiltten zien. Umiek, hori, zabaldu zen danien ta danak. Pakok ez zeban esan ta esan netsen lehengoan: “se te olvidó la canción del bigote, hombre. Mecauen, ¿cómo no se te acordó aquello?” Memorire etorri bez. Ba, esan osten: pues, orduen hori kanteten zan. Eskolako umiek ba, bat hasten zan ta ume guztixek hau te bestie. Ta guardia zibillek handik-eta “chavales…” Guk be, guardia zobillek ikusten genduzenien, danak “ni palabra”. Ixilik danok, joder!

13. Guardia Zibila, mikeleteak eta "guardias de asalto"ak

- **Erref**: GER-059/017
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:32:31. **Bukatu**: 00:34:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Guardia Zibilen kuartela Pilatosen etxean egon zen eta Saraspen mikeleteak egon ziren, foralak, Omaetxebarria botika dagoen lekuan. Gerora, "guardias de asaltos"ak egon ziren Lurgorri aldeko txalet batean.

Transkripzioa
- Ta hemen Gerniken guardia zobillek beti egon die ta asko?
- Han lehen zerien, han goixen bizi zien.
- Saraspen?
- Bai. Saraspen egon zan, Pilatosen etxien bizi zien harek, han atzien. Saraspen eon zien mikeletiek, foralak. Zelan dauen ha? Klaro, han kantoien dau farmazixe, Ormaetxeana. Ormaetxean etxie bat eongo da. Hantxe eon zien honek, mikeletiek. Zan alture bateko etxie; osea, ez zan ganien etxerik ez zan egon, bakarriklonjie. Hantxe eon zien honek foralak. Ta ha etxie, ha jota egon zan gure etxie. Ta guardia zobillek beste alderdixen egon zien. Baiña gero foralak gerra denporan desaparezidu zien hamendik. Gero, gerraostien bai agertu zien honek “guardia de asalto”ak etorri zien Gernikera. Hor bizi zien hor Lurgorri bueltan. Hortxe egon zien. Han txalet bat euan akordetan naz ni. Honek bentanak eta balkoiek, añil pinttaute hantxe egon zien honek zerak, guardia de asaltoak esaten otsien orduen hareri. “Ahora son la policía estatal” edo zelan deko horrek izena? “La policía de…” Madrillen-ta dauezenak. Holakoxiek eon zien orduen, han. Baiña ostantzien esan dotsut /esantsut/.

14. Baserritarrek presoei jatekoa eramaten zieten

- **Erref**: GER-059/018
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:34:02. **Bukatu**: 00:35:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:
Nazionalak Gernikan sartu zirenean, tankeak-eta Tilosetan izan zituzten. Presoak agustindarretan egon ziren, institutua dagoen lekuan, eta baserritarrek jatekoa eramaten zien. Baserritarrek heladeriara eramaten zuten esnea. Etxe askotan argoia egoten zen, astoa lotzeko uztaia. Umeak argoiekin jolasten aritzen ziren.

Transkripzioa
- Gero beste bat honek Nazionalak sartu zienien, euki biezan honek tankiek eta kamioiek-eta Tilosetan. Pasiolekuen, hemendik eskoako alderditik haratz joanda. Ta […] behien goixen euki eben: txontxorra kamiñoan ta behien hegalak, beherantz sartunde, pisuaz hara jeusitte beherantz. Ta denpora askoan eon zan konpondu barik, gero be. Ze han ni akordeten naz presoak zelan eon zien Agustiñoatan. Ze umetan bakizu ba, dana ibiltten zara-ta. Ta harek presoak ointsu arte eon zan, ointxe dala, zemat esango dotsut, ba? Bost-sei urte hil zen bat, katalana. Guk, katalana deitzen geuntsen danok. Iñok be, ez eban jankin zelan dekon izenik be: “El catalán”. Ta harek esaten eban: “a mí que no me hablen mal de los vascos; sobre todo de las aldeanas, porque nos traían talo y leche, estando yo preso. Yo les debo mucho”. Edozer eingo ei zeban berak, halako andra batengaittik esaten eban. Eureri ekarri esnie; ze, orduen bakizu, horra erixera ekarten eben andrak, kantiñetan-ta. Ordun, eon zien holako barra batzuk burdinezkoak ta horretan umiek ba bueltaka. Zeiñek buelta gehixa emon, barratan-ta hantxe. Hantxe egoten zien asto guztixek, kantiñekin. Ta etxe askotan eoten zan aroa, argollie, lotzeko astoa hormatan. Leku askotan ta hori, etxietan eon zan. Ta guk umiek bata ta bestera emon: “klin-klon”. Solte egoten zienez holako zer baten, ba buelta emon ta zemat etxekoak […]: “Horrek ze, ez eizue atara zaratarik!” Eta gabaz be, apur bet edanda bazauzen be bardin eitten da. Geur, zarata asko baiña ordun, ixilik eoten zan Gernike. Bakizu zelako zaratie “klin-klon”? Orduen “ya te digo”, ein genduzen...

15. Gurago du lehengo Gernika

- **Erref**: GER-059/019
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:35:50. **Bukatu**: 00:38:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
<p>Angelek gurago du lehengo Gernika-Lumo gaur egungoa baino; lehen

denek ezagutzen zuten elkar, ez zegoen kanpotarrik. San Kristobal aldera kitanuak joaten ziren eta bertan ikusi zuen lehen aldiz zinema, bertan jarri zuten tela batean. Ostean poltsa bat pasatzen zuten dirua batzeko. Errepideetatik ez zen pasatzen autotik, autobusen bat tarteka baino ez. Lasai-lasai aritzen ziren jolasten. Saraspe inguruan egoten zen Gernikarako muga, mikeleteak bertan egoten ziren jesarrita.</p>

Transkripzioa
- Ahora, bizitteko nik gura neban lehengo Genike geurkoa baiño. Bai. Danak ezetzen ziñen. Hamen, kanpoko jentie orduen, banakaren bat bai egon zan; honek zerak, etorri zienak biherrien hona Astrara-ta, kiputxek, etorri zirenak. Ostantzien ba, gehixenak hamen, danak bata-bestiaz danak ezetzen ziñen. Ze, jentie ba, kanpokorik ez zan egon. Horregaittik, nik gura neban orduen. Ni akordetan naz umetan, hor ikusi zendun San Kristobaleko surtidora? Hara surtidora, orduen ez zan egon surtidorik ez ezebez, han. Plazuelie. Ta etorten zien kittanoak, honek, otso bategaz-ta. “Baila Manuel” hondiño […] memorixen dekot. “Baila Manuel” esaten otsien. Ta holako otso bat, eukitten eban kittano batek gerrittik lotute. Ta gero surretatik eskuen, aroan domiñetako. Ta ezebez, harek otsoak gixajoak ze eingo eban ba, zutunik be, justu-justuen egoan-ta. Apur bat balantzie, hau te bestie. Ta hango bueltako andrak, danak hartu eben [urkitxue] ta joaten zien, jesarritten zien bueltan ikusteko ze eitten daben. Nik lehenengo ziñie ikusi nabena, hantxe ikusi naben. Ipini eben holako izara bat, ta aintziñeko holako karraka handi bet “tarratata” nik ez dakit zelan-eta. Koño, ezebez! Figura batzuk-eta zozer hantxe telien. Ta gero holako kable bat ipintten eben ta neska bat ibiltten zan han, kablien. Ba, zer, metro biko altura barik. Pasetan, batera ta bestera ta gero, pasaten eben holako poltsa bet, zaku bet, ba bakotxak botateko berak gure deuena. Horreaittik ha, geuzie zan herriko geuzek, herri-herrixe. Ez zan gaurko moduen. Geur, adelantuek eta geuzek dauzenak. Ordun, ibiltten ziñen hamen olgetan umiek. Ba, bakizu, fubola ta zerien, kalien. Hor gerra aurrien-ta ez zan pasetan autobuse baiño Ta noizepeñien. Ta klaro, lekue egun guztixen danerako. Gero, han goiko, gu, goittarrak gara, saraspetarrak. Ta etorten zien Gernikera ba, ikusten ba, trena-ta zer dauen ta zer ez dauen. Ta harek, ha jefie eon zan ba, Garaioa, hau bankukoa egon zan jefie, harena? Foralana edo mikeletiek edo ez daitz zer zien, ta harek esaten eban: “chavales, a Gernika no, eh! Nosotros, pa aquí, allí nada. Pa arriba. Nada de ir a Gernika”. Atara kontuk, handixik farmazixetik eta hona behera, zenbat distantzi dauen, e! Eskubete distantzi baiño ez dau. Ta esaten: “de ahí pa arriba”. Eurek eukitten eben han kanpoan halako banku luze ba,; hantxe tabernetan dauzen modukoa, hantxe kanpoan eoten zien jesarritte lau edo bost, denporie emoten ta “en fin, épocas ¡qué épocas!”.

16. Tabernan billetea sinatu zuena ezagutu

- **Erref**: GER-059/022
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:40:54. **Bukatu**: 00:43:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:
Billete zahar pila bat erakusten ditu. Lizeo taberna izan zuen Angelek eta

bertan izaten zituen askotan erakusgai. Behin Bilbotik txikiteoan etorri zen batek bere sinadura ezagutu zuen billetean bertan.

Transkripzioa
- Honek danak die hamengoak. Honek Euzkadikoak. Honek diferentiek billetiek. Honek danak die, osea zerak dekez firmek, “el avalao de atrás. Este es el aval del billete vasco por el Banco de España, porque el Banco de España estuvo en Bilbao entonces”. Ez zan egon Madriden, Bilbon eon zan.
- Bilbon egon zan?
- Bai. “Y, éste es el eso, el… ¿Cómo se llama, eso? Jesus! Se me olvida ya, todo”. Zahartzaroaren geuzek. “El aval de que este billete es auténtico. Y, esto firmaba…” Bilbon eon zien orduen, firmeten ebenak hau batzuk. Niri kasue paseu jaten? Barrien nauela, etorten zien hamen Bilbotik, “yo tendría entonces pues, ¿qué te voy a decir yo, treinta y cinco o treinta y seis años?”. Etorten zien bilbotar batzuk, kuadrilla bat, zortzi-edo. Trenien etorten zien zurixek edaten, domeketan edo zapatuen. Ta eitten eben rondie Gerniken ta esaten eban: “como el vino blanco de Gernika no hay en ningún lao”. Ta hamen pernille ta leku guztixetan jaten eben-ta hamentxe ibiltten zien. “Y, da la casualidad que…” Nik, honek, barrien euki nebazen eskeitte honek monedak. Danak. Ta esan osten: “coño, las monedas esas y tal y cual y... Ya, el papel de Euskadi. Oye!”. Batek esan eban bestiai: “tú, ¿no te acuerdas de las monedas de Euskadi?”. “Sí, hombre ¿no me voy a acordar, estaría bueno? Porque él tenía el poder de una de las firmas en Bilbao, en el banco. Y.”. Atara nabezan hara ta: “coño, ésta es mi firma!”. Ta beste bat ein ban azpixen, bardiñe. Bai. Ta ha billetie, esan osten /esasten/: “tengo que llevar porque no tengo”, ta eroan ein eban. “Esos, claro aunque por fuera son…” Baiña aurretik danak ehun pezetakoak.
- “Banco de España Bilbao”. Bai. “Pagar al portador, pesetas cien. Treinta y seis, uno de septiembre” mille beratzirehun ta hogeta hamasei.
- Hogeta hamasei! Ba, atara kontuk.

17. Billete-bilduma osatzeko asko gastatu

- **Erref**: GER-059/023
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:43:00. **Bukatu**: 00:47:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:
Billete zahar pila bat erakusten ditu. Behin madrildar batzuek bilduma guztia erosi nahi izan zieten eta 350.000 pezeta eskaini zizkieten, baina ez zien saldu. Beste behin amerikar batzuek txanpon bat eskatu zien. Euzkadiko billete bat ere erakusten du, idiak agertzen direna. Euzkadiko lehenengo dirua izan zena erakusten du. 1936-1937 ingurukoak dira gehienak. 50 pezetakoa oso gaitza omen zen aurkitzeko. Sasoi hartan diru asko balio zuten billete horiek, eta Angelek bilduma osotzeko ere diru asko gastatu du. Euzkadiko diruaren balioa gobernuak anulatu zuen eta dirua izan arren balio barik gelditu ziren asko eta asko.

18. 1925. urteko 1.000 pezetako billetea

- **Erref**: GER-059/024
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:47:08. **Bukatu**: 00:50:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Errepublika aurreko billeteak ditu eskuartean. 10 pezetako billeteak Burgosen egin ziren lehen aldiz. 1925. urteko 1.000 pezetako billete bat ere badu. 1.000 pezetako hori banketxera aldatzera joan zen emakume bati erosi zion, eta baliorik ez zuenez, berak erosi zizkion orduko 1.000 pezetaren truke. 1907. urteko 1.000 pezetako billete bat erakusten du.

19. Bonbardaketaren 50. urteurreneko zigiluak

- **Erref**: GER-059/025
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:50:32. **Bukatu**: 00:51:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenerako zigilu batzuk atera zituzten eta horietako batzuk daude ikusgai

20. Espainiako herrialde ezberdinetako diru zaharrak

- **Erref**: GER-059/026
- **Iraupena**: 0:04:07. **Hasi**: 00:51:29. **Bukatu**: 00:55:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Espainiako diru zahar pila bat ikusten da irudian. Gerra denboran, herrialde bakoitzak bere dirua egin zuen, Euzkadik egin zuen moduan. Honako hauek daude ikusgai beste gatzuen artean: "Consejo Asturias y León"ekoa, Espainiako bankuan Kuban zuen dirua, "Ajuntament de Barcelona"ko pezeta bateko billetea, CNTren pezeta 1ekoa, Burgosko gobernuarenak, Senecak...

21. 1936-1940 bitarteko dirua

- **Erref**: GER-059/027
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:55:36. **Bukatu**: 00:59:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
1940 inguruko Espainiako bankuko dirua dago ikusgai. Francok atera zuen lehenengo dirua 1936an izan zen, Burgosen atera zuen eta horietako ale bat ere erakusten du Angelek. 1937, 1938, 1940... urteetako beste hainbat billete era ikus daitezke

22. 100 pezetako billete zaharrak

- **Erref**: GER-059/029
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:59:47. **Bukatu**: 01:01:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Billete zahar batzuk erakusten ditu Angelek, gehienak 100 pezetako billeteak dira.

23. 500 pezetako billete zaharrak

- **Erref**: GER-059/030
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:01:28. **Bukatu**: 01:02:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Billete zahar batzuk erakusten ditu Angelek, gehienak 500 pezetako billeteak dira. Francoren sasoikoek Francoren ikurra daramate, ostekoek ez.

24. 1.000 pezetako bilete zaharrak

- **Erref**: GER-059/031
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 01:02:53. **Bukatu**: 01:04:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:
1.000 pezetako bilete zaharrak erakusten ditu.

25. Gerra sasoitik 80. hamarkadara arteko billeteak

- **Erref**: GER-059/032
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 01:04:34. **Bukatu**: 01:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
1936. urteko 100 pezetako billetea erakusten du, Santanderrekoa. Franco sasoitik hasi eta 80. hamarkadara artekoak ere ikus daitezke. Ekonomatoko txartel bat ere badago. Banketxekoei esker lortzen zituen askotan diru zahar hauek.

26. 1906. urteko dirua

- **Erref**: GER-059/033
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 01:07:00. **Bukatu**: 01:07:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
1906. eta 1927. urteko billete

27. Diru zaharrak tabernatik kentzeko agindua

- **Erref**: GER-059/035
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 01:08:58. **Bukatu**: 01:11:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Mundakako kazetari batek Angeli buruz egindako erreportaia bat erakusten du. "Bar-museo de Guernica" izeneko artikulua izan zen, berak diru zaharrak tabernan izaten baitzituen erakusgai. Handik sasoi batera guardia zibil batzuk joan zitzaizkion diru haiek handik kentzeko esaten, badaezpada ere.

28. Txinko dinastia bateko dirua

- **Erref**: GER-059/036
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 01:11:12. **Bukatu**: 01:12:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Herrialde desberdinetako billeteak erakusten ditu. Behin Txinako dinastia

bateko alaba batek beraien dirua eman zion eta horiek ere baditu gordeta Angelek.

29. Mila milioi markotako billetea

- **Erref**: GER-059/038
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 01:12:56. **Bukatu**: 01:13:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Mila milioi markotako billete bat du. 1914-1920 bitartean, munduan zehar banatuta egon zen markoa. Eta sasoi hartako bat du Bizkaiko banketxeko abalduna.

30. II. Mundu Gerrako amerikarren dirua

- **Erref**: GER-059/040
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 01:14:49. **Bukatu**: 01:16:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:
II. Mundu Gerran amerikarrek mundu guztian zehar erabiltzen zuten dirua erakusten du. Billeteen data lehenagokoa da, baina amerikarrek lehenagokoa atera zuten berriro ere.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-24

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com